

Espediente-kodea: 2023ZDIZ0013

TXANTXIKU DENDERIXEN ALKARTIA TXANDA
KALE BARRIA 47
20560 - OÑATI
GIPUZKOA

AKORDIO JAKINARAZPENA

Udal Tokiko Gobernu Batzarrak 2024ko urtarilaren 25ean egindako bileran, besteak beste, ondorengo erabakia hartu zuen:

9.- Onartzea, hala badagokio, Alkateak gai honi buruz egindako proposamena: Txanda merkatari elkartearen 2023ko dirulaguntzaren zuriketa eta dirulaguntza onartzea (2023ZDIZ0013).

Alkate-udalburuaren 2024ko urtarilaren 23ko proposamenak honela dio:

Gaia: Txanda merkatari elkartearen 2023ko dirulaguntzaren zuriketa eta dirulaguntza onartzea (2023ZDIZ0013).

Unai Kortabarria Errastik (Sozioekonomia batzordeko idazkariak eta sozioekonomia teknikariak) bere txostenean jasotzen duenez, Sozioekonomia batzordean, aldeko irizpena jaso zuen honako proposamenak:

Expediente zk. 2023ZDIZ0013

Gaia: Txanda Merkatari Elkartearen 2023ko dirulaguntza (izenduna)

Prozedura: ZDIZ Udalak emandako dirulaguntzak (izendunak-zuzenak)

Erregistro zenbakia: 2024/480

Sozioekonomia batzordean Txanda merkatari elkartearen 2023ko dirulaguntza zuriketari buruzko informazioa eman da. Jarraian azaltzen dira gaiarekin lotutako **aurrekariak**:

Lehenengoa.- 2024 urtarilaren 15eko dataz, Vilma Haydee Soto Herrerak, Txanda Merkatari Elkartearen izenean, udalaren dirulaguntza zuritzeko dokumentazioa aurkeztu du (Erregistro zenbakia 2024/480).

Bigarrena.- 2024 urtarilaren 16ko dataz, Vilma Haydee Soto Herrerak, Txanda Merkatari Elkartearen izenean, udalaren dirulaguntza zuritzeko dokumentazioa osagarria aurkeztu du (Erregistro zenbakia 2024/555).

Hirugarrena.- Txanda merkatari elkarteak 2023ko maiatzaren 8an dirulaguntza eskaera aurkeztu zuen udalean, 2023ko ekintza plana garatu ahal izateko (Erregistro zenbakia 2022/ 2863).

Laugarrena.- 2023ko maiatzaren 18ko Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen Txanda Merkatari elkarteari 2023ko ekintza plana garatzeko dirulaguntza izenduna onartzea. Akordio horretan gehienezko 20.000€ko dirulaguntza onartu zen, dirulaguntza emateko baldintzak zehaztu ziren eta merkatari elkartearekin lankidetzat hitzarmena sinatzea onartu zen. Ordainketari zegokionez, dirulaguntza zenbatekoaren %50, hau da, 10.000€ hitzarmena sinatzen zen momentuan ordaintzea erabaki zen.

Bosgarrena.- Oñatiko Udalak Txanda Txantxiku Merkatarien Elkarteari ematen dion dirulaguntza izendunak elkartearen eta udalaren arteko lankidetzat publiko - pribatua dauka oinarria. Bi erakundeen arteko elkarlana funtsezkoa da Oñatiko hiri-merkataritzaren garapena sustatzeko, arrazoi horregatik ematen zaio dirulaguntza izenduna Txanda merkatari elkarteari eta ez da prozedura irekia jarraitzen (38/2003 Legearen 22-2. Art.).

Txanda merkatari elkarteak aurkeztutako zuriketa aztertu da, besteak beste, ekintzen memoria, gastuen zerrenda eta gastu horiek justifikatzen dituzten agiriak.

Jarraian azaltzen da **zuriketaren balorazioa**:

Lehenengoa.- Aurkeztutako gastuen zerrenda sailkatua eta gastu horiek justifikatzen dituzten agiriak aztertu ondoren hauek dira onartu diren gastuak:

GASTUAK 2023	ZENBATEKOA
Aurkeztutako gastua	62.243,90€
Onartu gabeko gastua	4.839,30 €
Onartutako gastua	57.404,60 €

Bigarrena.- Txanda elkartearen memorian jasotakoaren arabera, elkartearen sarrerak honako hauek izan dira:

SARRERAK 2023	ZENBATEKOA
Eusko Jaurlaritza - Hirigune programan aurreikusitakoa	19.216,08 €
Bazkideen kuotak	5.920,00 €
Aurreikusitako sarrerak	25.136,08 €

Hirugarrena. Ondorioz, zuri ketan aurkeztutako onartutako gastuak eta aurreikusitako dirulaguntzen arteko diferentzia 38.188,52 € dela kontuan hartuta, 2023ko udalaren dirulaguntza 20.000€koa izatea proposatzen da.

Laugarrena.- Oñatiko Udalaren ematen duen dirulaguntza zuzena bateragarria izango da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jasotako dirulaguntzekin, beti ere gain-finantzazioa gertatzen ez bada. Kasu horretan, udalak emandako dirulaguntzaren zenbatekoa gutxituko da gastu eta sarreraren arteko diferentzia orekatu arte. Gain-finantzazioa gertatzen bada elkarteak izango du udalari jakinarazteko eta dirulaguntza itzulketa egiteko betebeharra.

Dirulaguntza zuri ketaren azalpenak Sozioekonomia batzordean eman dira eta batzordekideek Txanda elkarteak 2023an zehar Oñatiko merkataritza sustatzeko eta dinamizatzeko egindako lana goraipatu da.

Horrela beraz, erabaki proposamena hau egiten diot Tokiko Gobernu Batzordeari:

Lehenengoa.- Txanda merkataritza elkarteari, 2023ko ekintza plana finantzatzeko, guztira 20.000€ko zuzeneko dirulaguntza onartzea. Dirulaguntza zenbatekoaren gainontzeko %50a ordaintzea, hau da, 10.000€, udal aurrekontuen 1000.480.241.03.01 2023 (5653) diru-atalaren eta bere lotespen-mailatik.

Bigarrena. - Erabaki hau interesdunei eta udaleko Kontuhartzailetza sailari jakinaraztea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

Hirugarrena. - Dirulaguntzaren onuraduna Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan (BDNS) argitaratzea.

Gaia aztertuta eta gastuari dagokionez kontu-hartzailearen oniritziarekin, tokiko gobernu batzarrek aurreko proposamena onartzea erabaki du aho batez.

Jakin dezazun eta behar diren ondorioetarako adierazten dizut hori, Oñatin, sinadura digitalean ageri den datan.

INPUGNAKETA-BIDEAK

Honen berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako. Bide batez, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko **AUZI-ERREKURTSOA** aurkez dezakezu Administrazioarekiko Auzitarako Epaitegian, Donostian, **BI HILABETEKO EPEAN**, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1.998 Legearen 8. eta 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 114. c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatzian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, **BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOA** aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari (Helmuga digitaleko Kodea L01200599) **HILABETEKO EPEAN** jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Hori guztia, aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dituzun egintza edo errekurtsok aurkezteari kalterik egin gabe.

MEDIOS DE IMPUGNACION

Lo que se le/s notifica a Vd/s. a los efectos procedentes, significándole/s que, contra el citado acto expreso, que es definitivo en vía administrativa, podrá/n Vd/s. interponer en el plazo de **DOS MESES**, contados desde el día siguiente al de la recepción de la presente notificación, **RECURSO CONTENCIOSO ADMINISTRATIVO** ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo con sede en Donostia-San Sebastián, a tenor de lo establecido en los art. 8 y 46 de la Ley 29/1.998 de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, en concordancia con el art. 114.c) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

No obstante, con carácter potestativo, y previo al Recurso Contencioso-Administrativo señalado en el párrafo anterior, contra la resolución expresa que se le notifica, podrá/n Vd/s. interponer **RECURSO DE REPOSICIÓN**, ante el mismo órgano que lo dictó (Código digital de destino: L01200599), en el plazo de **UN MES** que se contará desde el día siguiente al de la fecha de la recepción de la presente notificación.

Todo ello, conforme a lo establecido en los artículos 123, 124 y concordantes de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, anteriormente señalada, y sin perjuicio de cualquier otra acción o recurso que estimare/n oportuno interponer para la mejor defensa de sus derechos.

